

BISITA-GIDA



Lorategia eta Parkea

Isabelle Auricoste (Paisaiaren Sari Nazional Nagusia, 2000) eta Lionel Hodier baratzezainek lorategi honetan mundu osoko ehunka lore, zuhaixka eta arbola landatu dituzte.

Haien sorkuntzak Baxenabarreko bazterrak oroitazten ditu. Hauetan, Ipar Europa eta Hego Europa lotzen dituen bide bat iragaten da, eta bide horretatik milaka urtez emazte eta gizon ainitz iragan dira.

Donapaleu Compostelako hiru bide nagusien bidegurutzear kokatua da (GR 655,654 eta 65). Lorategi hau eta haren parkea ezagutzeko denbora har ezazu: bake lekua da atzoko eta egungo bide nagusi hauetan ibili diren ibiltari guziendako.

Kalostra

Frantziskotarren komentu hau 1850. urtean altxatua izan zen eta berriki zaharberritua. Lekuak eskaintzen duen lasaitasuna lagun, kalostra berrituko ate guziak ireki itzazu lekuen bisitatzeko, eta arte, historia eta ezagutza bideak ezagutzeko. Zentroan, Christian Lapie artistaren zazpi eskulturek zaintzen zaituzte, hemendik oren batera den Xibaltareko bide berriko (GR 654) eskulturen gisan.

“Compostelle” filma

Zure bisitaren geldialdi honetan Christine DIGER eta Arno LABATEk egin “Compostelle” filmari so egin diezaiokezu. Hogei bat minutu irauten du. Compostelako bidearen historia ikertzen dutenen hitzak bilduak dira film honetan, bai eta hara abian diren jendeen aurpegiak eta hitzak. Jendetasunezko bide hori barnaki kontatzen digu filmak.

Arte eta ezagutza bidea

Baxenabarreren historia hobeki konprenitzeko eta haren geroa doi bat argitzeko, Chemins-Bideak guneak urte guzian proposatzen ditu hitzaldiak, lantegiak, formakuntzak, topaketak... Ekitaldi horiek denei irekiak dira, eta ingurumen mailan jokoan denari buruz dira. Artista plastikoen, margolarien, zizelkarien edo argazkilarien erakusketek gure izpirituak beste bide batzuetatik pizten dituzte.

Fresko handia

Hemen, Baxenabarren, badu 50.000 urte garai eta kultura desberdinetako emazteak eta gizonak bizi direla, eta herexa hauskor ainitz utzi dituzte.

Guillaume TROUILLARD artistak fresko handi hau marraztu du 7 historialari ezagutuen erranetatik abiatuz. 50 metro luzeko obran kontakizun kronologiko zehatza baina sinplifikatua ikus daiteke, milaka urtetako historia ulertzeko.

Jende-taldeen historia luzea ikus daiteke; kultura, ingurumen, politika eta sozial mailan geldi-geldia aldatu den herrialde honetan iragan edo finkatu diren jendeen historia, hain zuzen, borrokan ari izan diren jendeena, sortu eta hil direnena, agertu eta desagertu direnena.

Historiaurretik landa, gizon-emazte guzi horiek bide nagusi hau hartu dute, Nafarroako Pirinioetatik gaindi Ipar Europa eta Espainiara joateko. Badu mila urte Compostelako beilariak bideari lotzen zaizkiola, zeruaren graziaren bila, edo biziari zentzu bat eman nahian.

Hirurogei bat orrialdeko liburu ilustratua aurki dezakezu harrera-eraikinean: bisita hau luzatzen ahalko duzu argibide gehiagorekin eta bibliografia batekin.

Auditoriuma: arte eta ezagutza bidea

Auditoriumak biziki akustika ona du, eta hizlari bikainak errezibitzen ditugu han, bai eta talentu handiko musikariak, kantari eta abesbatza ederrak, bihotzak alegeratzeko.

Mundu osoari konektatua, beste ekitaldi edo erabiltzaile mota batzuentzat ere erabil daiteke.

Immigrazio bideak

XIX. mendean geroztik, euskaldun eta biarnes ainitzek immigrazioaren bidea hautatu zuten, Ameriketako lurralde urrunetara joateko. Horietarik gehienak esperantzarik gabeko anai-arreba gazteenak ziren. Gela honetan haien istorioak kontatuak zaizkizu, istorio xoragarriak edo tragikoak, konparazione, Argentinara joan Donapaleuko familia batena. Ordenagailu ttipian zure izena idazten baldin baduzu, beharbada arbaso bat edo haren ondoko bat atzemanen duzu zerrendatuak diren 100.000 izenen artean.

Arkitektura

Xavier Gauche eta haren lantaldearen obra da hau. Haiei esker, bisitariak leku honen izpiritu sinple, soil eta lasaiarekin bat egin dezakete, lorategitik kalostrara aise pasa daitezke zerura buruz irekia den ganga iraganez, auditoriumean musikari eta hitzei hurbildu daitezke, eta beste detaile ainitz ikus ditzakete denak forma, kolore edo ekai desberdinez eginak, denak harmonia ederrean pentsatuak.